



SUKALDEKO MAHAITXOA

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**

ABESLARIAK: **Nerea Urbizu eta**

Urko Oskoz

SAGUTXO TXIKIA
SUKALDEKO MAHAITXOAN
KRISTALA APURTZEN BADA
ERORIKO DA BERTAN

AI AI AI AI AI AI
AI AI AI AI AI (BERRIZ)

KATUTXO TXIKIA
SUKALDEKO MAHAITXOAN
KRISTALA APURTZEN BADA
ERORIKO DA BERTAN
AI, AI AI AI AI AI...

TXAKURTXO TXIKIA
SUKALDEKO MAHAITXOAN
KRISTALA APURTZEN BADA
ERORIKO DA BERTAN
AI, AI AI AI AI AI...

LEHOITXO TXIKIA
SUKALDEKO MAHAITXOAN
KRISTALA APURTZEN BADA
ERORIKO DA BERTAN
AI, AI AI AI AI AI...

ELEFANTE TXIKIA
SUKALDEKO MAHAITXOAN
KRISTALA APURTZEN BADA
ERORIKO DA BERTAN
AI, AI AI AI AI AI...



EMAN BIDEA EUSKALERRIA IRRATIARI
LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**
ABESLARIAK: **Fermin Muguruza eta**
Euskalerria Irratiko Lantaldea

EUSKALERRIA IRRATIA
IZAN ZAITEZEN LIBREA
BULTZADA BAT DA ENE KANTAK
EGIN DEZAZUN BIDEA.

IRRATIAK MARGOTU
NAHI DU IRUÑERRIA
EUSKARAREN KOLOREZ
OZEANO BERRIA.

EZ ITOTZEKO BEHAR
DITUGU EURI TANTAK
BEREA ESKAINTZERA
HELDU DA ENE KANTAK

EUSKALERRIA IRRATIA
IZAN ZAITEZEN LIBREA
BULTZADA BAT DA ENE KANTAK
EGIN DEZAZUN BIDEA.

IRRINTZI DU ETXEA
ARRAIN HANDIEN ANTZA
GOTORLEKU DORREA
HOR EGITEN DU DANTZA

IRRATI KOLOREDUN
HEGAZKINETAZ URRUN
ARRANTZALEOK ORDUN
IZANGO DUGU LAGUN

EUSKALERRIA IRRATIA
IZAN ZAITEZEN LIBREA
BULTZADA BAT DA ENE KANTAK
EGIN DEZAZUN BIDEA. (BERRIZ)



AZAROAK 13

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz eta
Nerea Urbizu**
ABESLARIA: **Manolo García**

NON DAGO ILARGIA? EZ DA IKUSTEN
LOTSATUTA, EZKUTATUTA
ITSASOA BERE ISPILUA ZELA
ENBATA BELTZAK EZABATUA

HONDARRAK EZ DU JADANIK ITXOITEN
ZABORREZKO OLATU URDINA
ETORKIZUNA ERAIKITZEN OMEN DUTE
BAINA SUNTSITUZ TA SORTUZ MINA

AZAROAK HAMAHIRU
ENEKOK MARGOAK ATERAKO DITU
HAIZEAK KOLOREAK SAKABANATUZ
ILARGIAK KRESALA USAINDUKO DU.

LOREA MOZTEKO EZPATA ZORROZTU
MARGOTUTA EZIN DA USAINDU
UDABERRIA EZINGO DUTE MOZTU
KEAK MEZUA EKARRIKO DU.

BASOAK BASAMORTU BIHURTUTA
EZINGO IZARRAK BESARKATU.
SARE ITZELAK HEDATZEN HONDOAN
ARRAIN TXIKIEK ARNASA GALDUZ.

AZAROAK HAMAHIRU...
URA IGOTZEN ARI DA BUSTIKO GARA
ERREPIDEZKO ARO MODERNOA
ILUNDUKO URTAROAK

AZAROAK HAMAHIRU... (BERRIZ)



POZIK BAZAUDE

LETRA: **Urko Oskoz**

MUSIKA: **Herrikoia**

ABESLARIAK: **O. Bengoetxea,**
A. Barriola eta
J. Apezetxea

POZIK BAZUDE EGIN TXALOKA
POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA
POZIK BAZUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN
POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA

POZIK BAZUDE IGERI EGIN
POZIK BAZAUDE IGERI EGIN
POZIK BAZUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN
POZIK BAZAUDE IGERI EGIN

POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA
POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA
POZIK BAZUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN
POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA

POZIK BAZAUDE MUGI BURUA
POZIK BAZAUDE MUGI BURUA
POZIK BAZUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN
POZIK BAZAUDE MUGI BURUA

POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN
POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN
POZIK BAZUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN
POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN

POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU
POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU
POZIK BAZUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN
POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU



GLU ETA GLU

MUSIKA: **Nerea Urbizu**

LETRA: **Arkaitz Goikoetxea**

ABESLARIA: **Ruper Ordorika**

OGI MUTUR BAT NAHI NUKE JAN
ARREN GALLETATXO BAT EMAN
ASKO JATEN NITUEN LEHEN
ORAIN EZIN, ZER GERTATZEN OTE DA HEMEN?
ZERBAIT BADUT, BAINA EZ DAKIT ZER DEN.

BARNEAN EGITEN DIT KALTE
NIRE GORPUTZAK EZ DU MAITE
ALDATU DIDATE DI-ETA
ORAIN ONGI, OSASUNEZ NAGO BETETA!
JAN DITZAKET BESTE ZENBAIT GALLETA

GLU ETA GLU
IKASI DUT ZURE IZENA
GLU ETA GLU
OMEN ZARA GLUTENA (BERRIZ)

URTEBETETZEAK HELTZEAN
NIRE LAGUNTXOEN ETXEAN
GAUZA ASKO IZATEN DENEZ
IKASI DUT ZER JAN DEZAKEDAN TA ZER EZ:
GOMINOLAK BIZKOTXOAREN ORDEZ!

ZELIAKOA NAIZELAKO
EZ DITZAKET JAN GAUZA ASKO
HALA ERE GUSTURA NAGO
ONARTU DUT, NIRE GORPUTZA POZIK DAGO
TA EGITEN DUT BARRE GEHIAGO

GLU ETA GLU
IKASI DUT ZURE IZENA
GLU ETA GLU
OMEN ZARA GLUTENA (BERRIZ)
NIRE GORPUTZA POZIK DAGO
EGITEN DUT BARRE GEHIAGO



IBILERAK

LETRA ETA MUSIKA: **Nerea Urbizu**

ABESLARIA: **Imanol Ubeda (Bide Ertzean)**

DENOK IBILERA DESBERDINA DUGU

DENOK IBILERA BEREZIA

MODU BATERA EDO BESTERA

DESBERDINA BEZAIN BEREZIA

MATXINSALTOA, MATXINSALTOA...

GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

TXINGO-TXINGOKA...

GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

KARRAMARROA, KARRAMARROA...

GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

HANKA PUNTETAN, HANKA PUNTETAN...

GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

PINGUINOA, PINGUINOA...

GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!



IPUINERAKO

LETRA: **Julio Soto**

DOINUA: **Xarmangarria zera**

ABESLARIA: **Nerea Urbizu**

ZABALDU BEGIAK TA
ERNE BELARRIAK:
IA ZER DAKARKIGUN
GAURKO IXTORIAK.
SORGINAREN ERRATZA?
LAMIAK? TXERRIAK?
GUZIAK ABENTURA
LILURAGARRIAK!



ONEKA

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**

ABESLARIAK: **A. I. Martinez,**

S. Ederra eta

N. Arizaga

MARRAZO HANDI HONEK
SORTARAZTEN DU BELDURRA
MARRAZO HANDI HONEK
BOST HIZKIKO IZENA DU

O-N-E-K-A (X3)
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK...
N-E-K-A (X3)
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK...
E-K-A (X3)
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK...
K-A (X3)
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK...
A (X3)
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK...
_____ (X3)
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK
O-N-E-K-A (X3)
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK...



TORTOTXIKI

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**

ABESLARIAK: **A. Riesgo,**

O. San Jurjo,

M. Bergara,

I. Agirretxe,

G. Iraizoz eta

M. San Jose

TOR – TO – TXIKI TOR-TO TXIKI (BERRIZ)

EO TORTOTXIKI EO TORTOTXIKI (BERRIZ)

TORTO TXIKI

GARESEN DUGU FUTBITO EH!

BALOIA MUGIZ ASTIRO EH!

GARESEN DUGU FUTBITO EH!

ADI IBILI TXIKITO EH EH!!!

FRONTOIAN DUGU PILOTA EH!

JUANEN GISA FUERTE BOTA EH!

FRONTOIAN DUGU PILOTA EH!

TANTO EGIN TXOKOAN EH EH!!

TOR – TO –TXIKI (BERRIZ)

EO TORTOTXIKI EO TORTO TXIKI (BERRIZ)

TOR – TO – TXIKI

ESKUAK GORA TA DANTZA EH!

BETETA DAGO ENPARANTZA EH!

ESKUAK GORA TA DANTZA EH!

DENAK MUGIARAZI ARTE EH EH!!

GUSTUKO DUT PSIKOGELA EH!

BOTAKO DIZUT PARDELA EH!

GUSTUKO DUT PSIKOGELA EH!

IZERDITAN BLAI NAGO EH EH!!

TOR – TO – TXIKI (LAU ALDIZ)

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

EUSKARAZ BIZI HEMEN

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

EUSKARAZ BIZI HEMEN

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

EUSKARAZ BIZI HEMEN



ALDREBESKERIAK

LETRA ETA MUSIKA: **Nerea Urbizu**

ABESLARIA: **El Drogas**

BEHIN MUTU BATEK ESAN ZIDAN
ADI ENTZUTEKO BERE_HITZAK
GOR BATEK ADITU ZUELA
TXAKUR BATEK MIAU ESAN ZUELA

BEHIN MUTU BATEK ESAN ZIDAN
ADI ENTZUTEKO BERE_HITZAK
GOR BATEK ADITU ZUELA
HARRIAK KANTATZEN HASI ZIRELA

BUA, BUA, BUA, DENA GEZURRA
NON DU HONEK EGIA_APURRA
ALDREBESKERIA ERRALDOIENA
ZEINEK ASMATU? EZETZ IZAN ZU!

BEHIN MUTU BATEK ESAN ZIDAN
ADI ENTZUTEKO BERE_HITZAK
ITXUAK IKUSI ZUELA
ARDIAK ARRAUTZA JARRI ZUELA.

BEHIN MUTU BATEK ESAN ZIDAN
ADI ENTZUTEKO BERE_HITZAK
ITXUAK IKUSI ZUELA
SUA ETA URA LAGUN ZIRELA.

BUA, BUA, BUA, DENA GEZURRA
NON DU HONEK EGIA_APURRA
ALDREBESKERIA ERRALDOIENA
ZEINEK ASMATU? EZETZ IZAN ZU! (BERRIZ)



ZURI ZORIONAK

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**

ABESLARIAK: **M. Ariztimuño,**

I. Iribarren,

S. Ganuza eta

M. Galartza

ZURI ZORIONAK, ZURI ZORIONAK
ZURI ZORIONAK BIHOTZEZ (BIS)

ZENBAT? 5

1, 2, 3, 4, 5 AAAAAAAAAAAAAH, ENeko!

ZURI ZORIONAK, ZURI ZORIONAK
ZURI ZORIONAK BIHOTZEZ (BIS)

ZENBAT? 6

1, 2, 3, 4, 5, 6 AAAAAAAAAAAAAH, EIDER!

ZURI ZORIONAK, ZURI ZORIONAK
ZURI ZORIONAK BIHOTZEZ (BIS)

ZENBAT? 7

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 AAAAAAAAAAAAAH, JON!



ITSASOKO ARRAINAK

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**

ABESLARIAK: **Fran eta Zuriñe (Hesian)**

ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN
ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN

ITSASZALDIA DA BENETAN AZKARRA A, A
BETI GORA DOA GUREKIN BATERA A, A

ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN...

BALEA HANDIAK BETI IGERIAN EZKER E, E
AHO ITZELA DU HONAKO HONEK ERE E, E

ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN...

OLAGARROAK GUSTOKO ALDE ESKUIN I, I
HAINBESTE HANKEKIN IGERIAN BERDIN I, I

ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN...

KORALA LASAI-LASAI GELDIRIK DAGO O, O
HORREGATIK EZ DU IKUSTEN HARA(TA)GO O, O

ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN...

URPEKARIAK BEHERA EGITEN OHI DU U,U
HONELA IKUSIKO DU MUNDUA URRUN U, U

ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN...
ITSASOKO ARRACHINEKIN IGERIAN ELKARREKIN...
(BIS)



HIRIBURUAK

LETRA ETA MUSIKA: **Nerea Urbizu**

ABESLARIAK: **M. Ariztimuño,**

I. Iribarren,

S. Ganuza eta

M. Galartza

HERRIALDE EUSKALDUNAK

MUNDUAN EZAGUNAK

HIRIBURUZ HIRIBURU ESANGO DITUGUNAK

IRUÑEA NAFARROA GARAIAN

GASTEIZ, ARABAN

BILBO BILBO BIZKAIAN

DONOSTIA, GIPUZKOAN

BAIONA LAPURDIN

DONIBANE GARAZI BEHE NAFARROAN

MAULE-LEXTARRE XIBERUAN

GUZTIAK EUSKALDUNAK!

GUZTIAK EUSKALDUNAK!



JASOTZERA

LETRA: **Nerea Urbizu**

MUSIKA: **Herrikoia**

ABESLARIA: **Nerea Urbizu**

JASOTZERA, JASOTZERA,
GOAZEN DENA JASOTZERA
HAU GUZTIA TXUKUN UZTEKO
GOAZEN DENA JASOTZERA (BERRIZ)



IKUSI NUENEAN

LETRA ETA MUSIKA: **Herrikoia**

MOLDAKETA: **Nerea Urbizu eta**

Urko Oskoz

ABESLARIAK: **A. Martin eta I. Ijurra**

IKUSI NUENEAN
ZURE ILE LATZA
IRUDITU ZITZ AidAN MAITEA
SORGINEN ERRATZA

IKUSI NUENEAN
NIK ZURE SUDURRA
IRUDITU ZITZ AidAN, MAITEA,
LUKAINKA MUTURRA.

AI, AI, AI, AI... AI, ZIRI-ZIRI TXANTXA
GUK ONGI PASATZEKO JARRIKO ZAITUZTEGU DANTZAN!

AI, AI, AI, AI... AI, TXANTXA ZIRI-ZIRI
GUK ONGI PASATZEKO EGINGO DUGU HAINBAT IRR!

IKUSI NUENEAN
ZURE BEKOKIA
IRUDITU ZITZ AidAN, MAITEA,
ZARTAGI IPURDIA.

IKUSI NUENEAN
ZURE BELARRIA
IRUDITU ZITZ AidAN, MAITIA,
AZAREN ORRIA.

AI, AI, AI, AI... AI, ZIRI-ZIRI TXANTXA
GUK ONGI PASATZEKO JARRIKO ZAITUZTEGU DANTZAN!

AI, AI, AI, AI... AI, TXANTXA ZIRI-ZIRI
GUK ONGI PASATZEKO EGINGO DUGU HAINBAT IRR!
GUK ONGI PASATZEKO EGINGO DUGU HAINBAT IRR!



ARANTZA NAIZ

LETRA ETA MUSIKA: **Nerea Urbizu**

ABESLARIA: **Mikel Urdangarin**

EGUNEZ EZ NAUZU IKUSIKO
GAUA BAITUT BABESLEKU
BALOIAREN ANTZA DUT BAINA
NI UKITZEN EZ SAIATU!

ARANTZA NAIZ BAI TRIKUA
ARANTZADUNA POTTOLOA
EZIN NAUZU UKITU, BADAKIT
BAINA MAITAGARRIA NAIZ

BARRASKILOAK, SUGANDILAK,
ZIZAREAK NAHIZ EZKURRAK
OROJALE AMORRATUA
OSO EHIZTARI ADITUA

ARANTZA NAIZ BAI TRIKUA
ARANTZADUNA POTTOLOA
EZIN NAUZU UKITU, BADAKIT
BAINA MAITAGARRIA NAIZ (BERRIZ)



BIKINGO ILE HORIDUNAK

LETRA ETA MUSIKA: **Oiane Yarza**
ABESLARIA: **Kutxi Romero (Marea)**

ITSAS ZABALETIK BIKINGOAK ETORRI ZIREN,
HONDARRIBIKO ALTXOR ETA BITXIEN BILA. (BIS)

BIKINGO ILE HORIDUNAK "DRAKKAR" ITSASONTZIETAN,
ESKANDINABIATIK EUSKAL HERRIKO TXOKOETARA.

HONDARRIBIKO EUSKALDUNEKIN LILURATURIK,
ALTXORRAZ AHAZTU ETA ADISKIDETU ZIREN. (BIS)

BIKINGO ILE HORIDUNAK EUSKALDUNEN ADISKIDE LEIALAK,
GOAZEN GUZTIOK FESTARA ETA DANTZARA,
ITSASOKO MAGIAREKIN BAT EGITERA.

HONDARRIBITARREI BIKINGOAK DEITZEN DIETE,
BERTAN ILE HORIDUN UGARI BAITAUDE. (BIS)

NANANANANA..... (BIS)

ITSAS ZABALETIK BIKINGOAK ETORRI ZIREN,
HONDARRIBIKO ALTXOR ETA BITXIEN BILA. (BIS) IEUP!

ARRAUN! ARRAUN! ARRAUN! ARRAUN! (BIS)



POLONESA

LETRA: **Urko Oskoz**

MUSIKA: **Herrikoia**

ABESLARIAK: **M. Ariztimuño,**

I. Iribarren,

S. Ganuza eta

M. Galartza

ERRALDOIAK DANTZAN DAUDE

KILIKIAK JOTZEN

GOAZEN GUZTIOK FESTARA

MUGITU ZAITEZTE!!

DANTZARA BAI BAI

FESTARA BAI BAI

LAGUNAK BAI BAI

ONGI PASATZEKO MODU ONENA

KALEAK, IRRIEZ BETETZERA



ESKU TREBEAK

LETRA ETA MUSIKA: **Nerea Urbizu**

ABESLARIA: **Nerea Urbizu**

BEGIAK ITXITA BAINA

ESKU TREBEAK DITUT

BOSTEKOA EMADAZU

NOR ZAREN JAKINGO DUT



ORDUA DUGU IA

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**

ABESLARIA: **Nerea Urbizu**

ORDUA DUGU IA

ORDUA DUGU IA

ETXERA BUELTATZEKO ORDUA DUGU IA (BIS)

LERROA OSATU,

LERROA OSATU,

ETXERA BUELTATZEKO LERROA OSATU (BIS)

ORDUA DUGU IA

ORDUA DUGU IA

ETXERA BUELTATZEKO ORDUA DUGU IA (BIS)

ORDUA DUGU IA

ORDUA DUGU IA